



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2015eko lehen
hiruhilekoa

Aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. Aurkezpena	3
b. Euskal kontsumitzailearen konfiantzaren bilakaera.....	7
c. Euskal kontsumitzailearen konfiantzaren osagaiak	11
d. Euskal kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	17
e. Eranskina	23
<hr/>	
<i>Fitxa teknikoa</i>	<i>27</i>

a) Aurkezpena

1. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?4
 2. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?5
 3. Edukiak6
-

1. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia erabiltzeko.

2. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetora bitartean) sailkatzen da iritzia.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta etxeetako konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzailearen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Baikortasuna
Ezkortasuna

3. Edukiak

Txosten honetako edukiak hiru multzotan sailkatu ditugu, txostena aurkezteko lehen honez gain.

Konfiantza-indizea

Familien Konfiantza Indizearen bilakaera eta estatuko, EBko eta erreferentziazko beste herrialde batzuetako emaitzen alderaketa.

Konfiantzaren osagaiak

Familien konfiantzaren osagaiak. Ekonomia orokorrari, etxeko ekonomiari, aurrezteko gaitasunari eta langabeziaren bilakaerari buruzko indize partzialekiko emaitzen bilakaera.

Erosteko erabakiak

Pertsonen kontsumo- eta inbertsio-erabakien aurrean bizi dituzten egoeren berri ematen duten gai osagarriak.

Hauek balioztatzen ditu: prezioek izan dezaketen bilakaera, erosteko unearen egokitasuna (orokorrean) eta etxerako erosketa garrantzitsuak (300 €-tik gorakoak) egiteari edo etxebizitza nahiz autoa erosteari buruzko igurikimenak.

Emaitzen eranskina ere barne hartzen du.


b) Kontsumitzailearen konfiantzaren bilakaera – 2015eko I. hiruhilekoa

- 4. Euskal kontsumitzaileen konfiantza hobetu egin da8**
 - 5. Estatuko eta EBko konfiantza-mailetara hurbildu da9**
 - 6. Oraindik urrun Erresuma Batuko eta Alemaniako mailatik ...10**
-

4. Euskal kontsumitzaileen konfiantza hobetu egin da


2015eko lehen hiruhilekoan, euskal familien konfiantza-indizeak 10 puntu egin du hobera, aurreko hiruhilekoko balioa (-19) aintzat hartuta, eta -9ko balioan kokatu da (balioak: -100 oso ezkorra eta +100 oso baikorra).

Azken urteko emaitzarik onena da, eta erakusten du kontsumitzaileen aburuz egoera sozioekonomikoak utzi egingo diola okerrera egiteari. Egoerak bere horretan jarraituko duen edo hobera egingo duen iritzia gailendu da.



5. Estatuko eta EBko konfiantza-mailetara hurbildu da


Euskal kontsumitzaileen konfiantzak hobera (-9ra) egin duenez, gertuago dago estatuan (-2koa) eta EB-28 multzoan (-5ekoa) lortutako balioetatik. Bi eremu horiek ere aldeko bilakaera izan dute, 2014ko azken hiruhilekoari begira.



* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2015eko I. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta urtarrileko eta otsaileko hileko datuen batez bestekoari dagozkio.

6. Oraindik urrun Erresuma Batuko eta Alemaniako mailatik

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren IV. hiruilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta urriko eta azaroko hileko datuen batez bestekoari dagozkie.


c) Euskal kontsumitzailearen konfiantzaren osagaiak

- 7. Ekonomia orokorrari buruzko ezkortasuna murriztu da.....12**
 - 8. Langabeziarekiko igurikimenen hobekuntza nabarmendu da.....13**
 - 9. Etxeko ekonomiarekiko igurikimenek ere hobera egin dute14**
 - 10. Aurrezteko igurikimenak nabarmen suspertu dira15**
 - 11. Familietako konfiantzaren osagai guztiak doaz gorantz16**
-

7. Ekonomia orokorrari buruzko ezkortasuna murriztu da

Ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko familien igurikimen-indizea 10 puntu hazi da, aurreko hiruhilekokoaren aldean.

Indizearen balioak ezkorrak (-11koak) badira ere, gertatu den gorakadari esker, azken bost hiruhilekoetako onenak dira. Euskal kontsumitzaileen ustetan, ekonomia orokorraren bilakaerak hobera egingo du, argi eta garbi.



8. Langabeziarekiko igurikimenen hobekuntza nabarmendu da

Langabeziaren bilakaerari buruzko igurikimenen indizea izan da Konfiantzaren Indize Sintetikoaren barruan susperraldirik handiena izan duen osagaia, 2014ko laugarren hiruhilekoaren aldean 14 puntu egin baitu gora.

Une honetan, euskal familiek lan-merkatuaren bilakaerari egiten dioten balioztapena neutroa da ia (-3koa). Langabeziak behera egingo duela uste dutenak zertxobait gehiago dira gora egingo duela iruditzen zaienak baino.



9. Etxeko ekonomiarekiko igurikimenek ere hobera egin dute

2015eko lehen hiruhilekoan zehar, etxeko ekonomiaren bilakaerari buruzko familien igurikimen-indizea -9koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino sei puntu hobe.


Azken urteko baliorik onena da, eta, hurrengo hiruhilekoetan finkatu egiten bada, euskal familien konfiantzan negatibotik positiborako inflexio-puntua berretsiko du.



10. Aurrezteko igurikimenak nabarmen suspertu dira

Euskal familien aurrezteko igurikimenen indizea hamabi puntu hobetu da, 2014ko laugarren hiruhilekoarekiko, eta -13an kokatu da.

Osagai horrek 2014an hobera egin bazuen ere, urte horretako IV. hiruhilekoan okertu egin zen. Ekonomia orokorraren, etxeko ekonomiaren eta langabeziaren igurikimenik onena aintzat hartuz, epe ertainera aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen susperraldian islatuko da familien egungo posizioa, nahiz eta oraindik atalase ezkorretan egon.



11. Konfiantzaren osagai guztiak gorantz doaz

Euskal familien konfiantzari buruzko indizearen lau osagaiak 2015eko lehen hiruhilekoan izandako bilakaerari goitik beherako begiratua eginez ikusiko dugu ikuspegia ez dela hain ezkorra eta 2014ko urtearen amaieran lortutako balioen aldean hobera egin dutela, oro har.

Hiru indizek hobekuntza nabarmena izan dute: ekonomia orokorraren bilakaerari buruzko igurikimenek, langabeziari buruzkoek (+14 puntukoa) eta familiek aurrezteko duten gaitasunarenak (+12 puntukoa). Etxeko ekonomiaren pertzepzioak ere hobera egin du, baina gutxixeago (+6 puntu).

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



	<u>14-II. h.</u>	<u>14-III. h.</u>	<u>14-IV. h.</u>	<u>15-I. h.</u>	<u>Aldea</u>
Familien konfiantzaren indizea	-17	-17	-19	-9	+10
Ekonomia orokorraren indizea	-19	-20	-21	-11	+10
Langabeziaren bilakaeraren indizea	-17	-19	-17	-3	+14
Etxeko ekonomiaren indizea	-13	-15	-15	-9	+6
Aurrezteko gaitasunaren indizea	-18	-15	-25	-13	+12

d) Euskal kontsumitzailearen erosketa-erabakiak


- 12. Inflazio handiagoaren igurikimenak handitu egin dira18**
- 13. Erosteke une egokiaren pertzepzioak hobera egin du19**
- 14. Etxerako erosketak egiteko asmoa hobetu egin da apur bat20**
- 15. Atonia nabari da etxebizitza eta/edo autoa erosteko asmoan21**
- 16. Etxeetako kontsumoa ez da okertu eta hobetzea espero da22**
-

12. Inflazio handiagoaren igurikimenak handitu egin dira

Kontsultatutako familien % 46ren ustetan, aurreko hamabi hiletako erritmo berean haziko dira prezioak, 2014an gertatu denez.

2015eko lehen hiruhilekoan, gehiago txikitu da (% 35etik % 28ra) prezioak motelago haziko direla uste duten familien multzoa, azkarrago haziko direla uste dutenen aldean (% 21etik % 26ra). Azken finean, familien erdiaren ustetan, inflazioak bere horretan jarraituko du; lautik batek, berriz, gora egingo duela dio.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek %-a/etxea)




13. Erosteko une egokiaren pertzepzioak hobera egin du

Oro har, nolakoa iruditzen zaizu une hau, etxerako gauzak (altzariak, etxetresna elektrikoak, gailu elektronikoak...) erosteko?

Etixerako gauzak erosteko une egokia ez dela uste duten familien ehunekoa lau puntu (% 41era) txikitu da. Une egokia dela uste dutenak, berriz, gehitu egin dira (% 16tik % 20ra). Horrela, bada, hamar familiatik lauren balioztapena neutroa da (% 39koa).

Azken buruan, familien baterako balorazioa hobetzen ari da.



¹ Azken 12 hilenean


14. Etxerako erosketak egiteko asmoa hobetu egin da apur bat

Nolakoak izango dira, zure ustez, etxeko gastuak edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, konponketak...), hurrengo 12 hiletan¹?

Hamar familiatatik zazpik (% 67k) ez du aldaketarik aurreikusten etxerako erosketa eta/edo gastuetan, aurreko urtekoekin alderatuta. Multzo hori zortzi puntu hazi da; murriztea aurreikusten dituen taldeak behera egin du (% 26tik % 18ra) eta handitzea aurreikusten dutenenak eutsi egin dio ehunekoari (% 6-5ean).

Atonia nagusi den agertoki horretan, etxerako erosketen igurikimenez hobera egitea, txikiagoak izango direla uste duten familiak gutxitzearen ondorio da.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹?
(pertsonek %-a/etxea)



¹ Azken 12 hilen aldean


15. Atonia nabari da etxebizitza eta/edo autoa erosteko asmoan

Etxebizitza erosteko asmoa (hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek %-a/etxea)



Ohiko etxebizitza erosteko (lehen erosteko edo aldatzeko) asmoa ez da suspertu: familien % 98aren esanetan, ez dute etxebizitzarik erosiko; aurreko hiruhilekoetako ehunekoek bere horretan jarraitzen dute, beraz.

Autoa erosteko asmoa (hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek %-a/etxea)



Ibilgailuen matrikulazioak¹ izandako susperraldi mailakatuaren harira, euskal familien % 5 inguruk datorren urtean autoa erostea aurreikusten du.

¹ 2014an, 32.299 auto matrikulatu ziren EAEn, 2012ko 25.862ak baino gehiago; alabaina, oraindik gutxiago dira 2009koak (43.214) eta 2010ekoak (44.012) baino. (Iturria: Faconauto)




16. Etxeetako kontsumoa ez da okertu eta hobetzea espero da

2015eko lehen hiruhilekoan, prezioen bilakaeraren indizeak balio positiboetan (+3an) jarraitzen du, baina aurreko hiruhilekoko baino hamar puntu okerragoa izan da.

Familia gehienaren iritzian, prezioak azken urtean bezala edo are bizkorrago haziko dira, datozen hamabi hiletan.

Erosteke uneari buruzko aurkako iritziak bere horretan jarraitzen du (-21ekoa da), nahiz eta aurreko hiruhilekoan baino zortzi puntu hobea izan. Testuinguru horretan, erosketak egiteko igurikimenez indizeak hobera egin du zertxobait, baina negatiboa izaten jarraitzen du: -17tik -14ra joan da.

Kontsumoari buruzko igurikimenez beste indize batzuk

	<u>14-II. h.</u>	<u>14-III. h.</u>	<u>14-IV. h.</u>	<u>15-I. h.</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenez	-2	10	13	3	-10	
Erosteke uneari buruzko balioztapena	-19	-24	-29	-21	+8	
Erosketak egiteko igurikimenez	-23	-28	-17	-14	g	

e) Eranskina

I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea	24
II. Euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera	25
III. Beste adierazle batzuk	26

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

14-II. h. 14-III. h. 14-IV. h. 15-I. h.

Familiaren konfiantzaren indizea (hurrengo 12 hiletakoa)

	14-II. h.	14-III. h.	14-IV. h.	15-I. h.	
• EAE	-17	-17	-19	-9	↑
• Estatua*	-6	-8	-10	-2	↑
• EB*	-5	-7	-8	-5	↑
○ Frantzia*	-22	-23	-23	-20	↑
○ Alemania*	4	1	-1	0	→
○ Erresuma Batua*	7	5	4	3	→

Osagaiak: familiaren konfiantza. EAE (hurrengo 12 hiletakoa)

• Ekonomia orokorra	-19	-20	-21	-11	↑
• Etxeko ekonomia	-13	-15	-15	-9	↑
• Langabezia	-17	-19	-17	-3	↑
• Aurrezkiak	-18	-15	-25	-13	↑

Kontsumoari buruzko igurikimeneen beste indize batzuk. EAE (hurrengo 12 hiletakoak)

• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimena	-2	10	13	3	↓
• Erosteke unearren balioztapena	-19	-24	-29	-21	↑
• Erosketak egiteko igurikimena	-23	-28	-17	-14	↑

Erosketa handiak. EAE (hurrengo 12 hiletakoak)

• Etxebizitza	1,3	1,8	1,6	1,0	→
• Autoa	3,1	4,6	4,5	3,4	→

⇒ (±2 puntuko aldea)

* I. hiruhilekoaren datuak: urtarilaren eta otsailaren arteko batz bestekoa.

** Erosteke probabilitatea (handia, nahikoa).

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

14-II. h. 14-III. h. 14-IV. h. 15-I. h.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea *(hurrengo 12 hiletakoa)*

• EAE

Adin-mailak

- 25 eta 39 urte bitartean
- 40 eta 54 urte bitartean
- 55 eta 64 urte bitartean
- 65 eta 74 urte bitartean

Lan-egoera

- Landuna (soldatapekoa/norberaren konturakoa)
- Langabea
- Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)

Familia-unitatearen hileko errenta

- 1.700 €-rainokoa
- 1.701 eta 2.800 € bitartekoa
- 2.800 €-tik gorakoa

-17

-17

-19

-9



-14

-13

-17

-6



-13

-13

-14

-11



-20

-23

-22

-10



-24

-25

-28

-9



-17

-9

-9

-4



-29

-35

-39

-25



-26

-22

-24

-9



-31

-34

-36

-26



-21

-16

-19

-6



-11

7

6

8



Beste adierazle batzuk	14-I. h.	14-II. h.	14-III. h.	14-IV. h.	15-I. h.(P)	(azkena)
BPG	0,4	1,3	1,5	2,1	-	IV. h.
Etxeetako kontsumoa	0,5	1,8	2,1	3,7	-	IV. h.
Afiliazioa	-0,7	0,7	-0,2	1,4	-0,3	Urtarrila
Erregistratutako langabezia	1,5	-1,4	-2,8	-0,2	1,8	Urt./ots.
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-0,7	1,1	-0,8	1,2	-	IV. h.
Azalera handien salmenta-indizea	-2,3	1,7	-3,7	2,8	0,3	Urtarrila
Etxebizitzen salerosketa	40,7	10,0	-7,6	-3,5	-	IV. h.
Ibilgailuen matrikulazioa	-5,7	15,9	-7,2	19,3	-2,2	Urt./ots.

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa. Azaroa/abendua bihilekoarekiko urtarrila/otsaila bihilekoan metatutako aldakuntzari dagokio. Urte-itxierako salmenten gorakada aintzat hartu behar da.
8. Erreferentziazko datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo biko) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.
Erreferentziazko datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean —azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko— kalkulatu da azken aldakuntza.

Fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Otsailaren 2. eta 3. asteetan (2015eko I. hiruhilekoan).*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

Metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm

Laboral Kutxa Ikerketak